

Besta giroa non, gure trikitilariak han

17 lagunek osatzen dute Etxalarko Trikitixa Taldea. Gazteak dira gehienak, 9 eta 13 urte bitartekoak, eta Lesaka Trikitixa Eskolan ikasitakoak dira aunitz. Nagore Ansalas da taldeko irakaslea eta Joseba Olagarai eta Amaia Agirre ibiltzen dira laguntzaile lanetan.

Hala ere, oraingo taldea sortu arte urte luzeko ibilbidea egin dute Etxalarko trikitixa taldeko trikitilariak. Egin dezagun historia pixko bat, labur-labur.

Poliki-poliki egindako bidea

Etxalarren aspalditik dago trikitixarekiko afizioa. Herri euskaldun gehienetan bezala, gurean ere doinu gustagarriak izan dira betidanik soinu ttikiarenak. Hala ere, duela dozena bat urte, ostatuan edo telebistan aditzetik herriko karrketan aditzera pasatu ziren etxalartarrak. Orduko gazte batzuk animatu eta, bata bertzearen arrimuan, Lesakara joaten hasi ziren, Laura Apeztegia irakaslearekin trikitixa jotzen ikastera.

Izaskun eta Xabier Ariztegi, Martin eta Oihana Sanzberro, Nerea Mitxeltoarena, Xabier Leiza eta Joseba Olagarai izan ziren horietako batzuk. Gurasoekin kotxetan txandak eginez moldatzen ziren astean behin Lesakara joateko. Berandu ailegatu eta presaka ibiltzea egunerokoa izaten zen. Hala ere, poliki-poliki trikitixa ederki mane-jatzen hasi ziren, moda ttiki bat sortuz. Herrian musikari berriak sortu ziren.

Irakaslez irakasle, Lesakako Trikitixa Eskolara

Bizpahiru urteren ondotik, Laura Apeztegiak, lan kontuengatik, utzi egin behar izan zuen trikitixaren irakaskuntza eta Etxalarko ikasleek Irubide ostatuan segitu zuten euren ibilbidea, Marixol Otxoteko irakaslearekin. Irriz oroitzen dituzte han ibilitako gehienek ostatuan pasatutako orduak, jendearekin solasean edo futbolinean jostetan. Irubidera joatea trikitixa jotzen ikastea baino aunitz gehiago zen. Poliki-poliki pieza erreperitorioa ere handitzen joan zen. Profesionalak izateko bidean pauso handiz ibilki ziren ikasleek.

Batzuk irrikaz eta gogoz segitu bazuten ere, gauza guztietan bezala, bertze batzuk gibelean gelditu ziren. Hasierako trikiti-koadrila ttikituz joan zen, eta aldi berean, aldatuz. Aurpegi berriak gehitu ziren, taldea indarberrituz. Laura Elizagoien, Garbiñe Maia, Nagore Ansalas edota Arantxa Zubieta izan ziren hasiberri horietako batzuk.

Urte batzuen ondotik, Marixolen eskuetatik Jone Elgorriagarenetara pasatu ziren ikasleak, orduan indartzen hasi zen "Lesakako Trikitixa Eskolan" sartuz. Joseba Iparragirrerren laguntzarekin trikitixaren mundu desberdina ezagutu zuten Koxkonta ondoko etxe eder batean. Irubideko arratsalde-pasak "Lauren ametsa"ko arratsalde-pasak izatera igaro ziren eta Elgorriagarren etxeko frontoia, igerilekua eta inguruko parajeak orduak eta orduak pasatzeko aitzakia bihurtu.

Mundu berri bat trikitixaren aitzakian

Bertze ikuskera batekin aurkeztu ziren etxalartarrei trikitixa eta honen inguruan mugitzen zen guztia Jone Elgorriaga irakasleak. Instrumentua jo-

tzeko maneratik hasita, trikitixa aditu, sentitu eta bizitzeko modurarte. Dударik gabe, aurrerapausu haundia izan zen. Lau pareten artean jotzetik kalean jotzera pasatu ziren. Lehen ere ibiliak ziren noiz edo noiz kanpoan, Lesakako Sanferminetan gehienbat, baina orain zientoka ekitaldi eta erromeriatan jotzeko aukera etorri zitzaizen hagitzen denbora laburrean. Lesakako eskola izaki, Lesakan bertan egiten zituzten emanaldi gehienak, Bortzirietako ferian, Iñauterietan edota urte zahar arratsean, bertzeak bertze. Baina hortik kanpo ere aunitz ateri ziren. Bortzirietan, Malerrekana, eta pixko bat urrunxeago, Gipuzkoa aldean ere bai.

Txapelketak, hasi berrien akuilu

Ateraldi horietako aunitz trikitixa txapelketen aitzakian egiten zituzten. Irakasleak, Jone Elgorriagak, esperientzia koxkorra zuen txapelketen aferan – bertzeak bertze, Nafarroako txapeldun izana zen behin baino gehiagotan- eta ikasleei esperientzia hori hurbildu nahi izan zien. Beretzat positibo eta aberasgarria izan zena, mundu horretan hasi berriak zirentzat ere hala izan zedin ahaleginak egiten zituen, eta emaitza hagitzen onak lortuz, gainera.

Gustura hartu zuten Etxalarko ikasleek txapelketetako esperientzia probatzeko erronka. Nagore Ansalas, Jasone Mitxeltoarena, Izaskun Ariztegi, Arantxa Zubietak eta Joseba Olagarai izan ziren horietako batzuk. Lesakako trikitilariekin bikoteak eginez, hantemenka, aunitz ibili ziren lehiaketa giroan. Eskualde barrenean Goizueta, Arantzan, Donezteben, Arizkun, Etxalarren, eta Lesakan, bertzeak bertze, eta urrunxeago, Zarautzen, Anoetan edo Zeanurin, batzuk erratearren. Giro hagitzen ona eta egun politikak gordetzen dituzte oroitzapenean txapelketa hauetatik. Konpetentzia eta lehiatik aparte, harreman onak izan ziren nagusi.

Ateraldiak ere franko egiten zituzten. Zaila egiten da Euskal Herri osoan barna egindako irteera guztiez oroitzea. Urtero antolatzen zen Nafarroako Trikitilari Egunean, Euskal Herriko Trikitilari Egunean, eskualdeko iñauteri eta bestetan, Herri Urratsen, Zangotzako Santa Agedan... besta giroa non, han ziren gure trikitilariak.

Auzoko bestak, trikitixa doinuak bus-tiak

Etxera bueltatuz, Etxalarrera, ez genuke oker handirik egiten urte haie-tan aspertzeko batere astirik ez zutela izan erranen bagenu. Izan ere, Lesakako Trikitixa Eskolan hartutako esperientzia aprobetxatuz, poliki-poliki, eta kasik aldi berean, herriko ekitaldi kultural guztietako parte izaten hasi ziren trikitilariak.

Duela hamarkada batzuetako indarrarekin ez bada ere, oraindik mantentzen dira Etxalarko auzo batzuetan “auzoko bestak”. Urritzokietak eta Antsolokuetak batez ere, besta giro politikarekin ospatzen dira abuztua hon-darrean eta iraila erdialdean. Antsolokuetan joan den urtean gelditu baziren ere, ordura arte 70 lagun inguru biltzen ziren elkarrekin bazkaltzera eta Urritzokietakoetan berdin.

Trikitilarietarako eskola bat izan dira auzoko besta hauek. Duela 7-8 urte inguru hasi ziren eta orduetik, ez dute urte bakar batean ere hutsik egin. Urte batean trikitilari batzuk, bertzean bertzeak, umore onez arduratu dira beti auzo hauetako bazterrak alaitzeaz. Oraindik ere segitzen dute.

Bestak, iñauteriak, Eguberriak, Gasna Feria Eguna...

Gauza gutti antolatzen da Etxalarren trikitilarien doinuez lagundu gabe. Herriko bestetan, Amabirjin bezperan, txupinazoarekin kalejiran ateratzen dira urtero. Horretaz gain, saio

berezia prestatzen dute Haurren Egunean. Inauterietan, etxez etxe eskean ibiltzen dira astelehenean gazteekin batera eta astearteko orgen desfilean parte hartzen dute. Eguberrietan Olentzerorekin batera ibiltzen dira kalejiran. Gasna Feria Egunean, ekaina hasieran, emanaldi berezia prestatzen dute. Haurren Egunean bazkalondoko giroa alaitzen dute. Herriko “Andre Mari Dantza Taldearekin” ere parte hartzen dute dantza-saioak prestatzen... etab, etab, etab. luze bat. Etxalarren nortasuna, herri bezala, trikiti doinuekin eraiki da, ezbairik gabe.

Oraingo taldea

Trikitixa taldearen historiak aritu garenean izen aunitz aipatu ditugu. Hala ere, orain momentuan, aipatutakoetatik gutti gelditzen dira. Gazteek hartu dute erreleboa eta “beteranoetatik” hiruk bakarrik segitzen dute jende aitzineko emanaldietan parte hartzen, Joseba Olagarrik, Amaia Agirrek eta Nagore Ansalasek. Azken honek sortu zuen Etxalarko trikitixa eskola duela urte batzuk, Lesakako ikasleak bildu eta promesa berriak animatuz, eta bera arduratzen da gaur egun gaztetxoentzako martxa eramateaz. Bere etxean ematen ditu pandereta klaseak eta hantxe trebatu dira oraingo taldea osatzen duten gehienak. Panderetaz gain, perkusio doinuek ere lantzen dituzte; yembea, darbuka, kriskitinak...

Hauexek dira taldea osatzen duten trikitilariak: Irune eta Itsaso Elizagoien, Alaitz Danboriena, Maitane Alzuguren, Izaro Iribarren, Miren Lasaga, Nahia Irigoien, Goiatz Jauregi, Joseba Irazoki, Jon eta Beñat Iparragirre, Aiora Danboriena, Amaia Zelaieta eta Nerea Iparragirre. Horietaz gain, irakasle eta koordinatzaile lanetan aritzen dira Nagore bera, Joseba eta Amaia.

Taldeko nagusienak bi instrumentu jotzen dituzte, trikitixa eta

pandereta, eta horietako batzuk perkusio tresnak ere bai. Ttikienak berriz, panderetarekin ari dira gehienbat.

Mota guztietako estilo eta erritmoak

Denetarik jotzen dute neska-mutil gazteek. Estilo eta erritmo mota guztiek dute lekua Etxalarko Trikitixa Taldearen errepertorioan. Betiko fandango eta arin-arinetik hasita, Kepa Junkeraren abestirik berezienerarte. Tartean, euskal kantutegi tradizionalako abesti ezagunak, edota paupturri herrikoiak aditu ditzakegu. Denetariko musika, denentzat.

Kantuari ere garrantzia berezia ematen diote, Ansalas irakaslea kantuzale eta kantari amorratua izanik, ezinbertzekotzat jotzen baitu trikiti doinuek abestiez lagunduta joatea. Betiko kantak eta momentuko talde berrienak nahasten dituzte euren emanaldietan.

Saio horietako bat duten aldioro jende parrasta biltzen da beti eta txalozaparrada ederrak ez du hutsik egiten saioaren akaberan. Arrakasta politeko taldea da eta herriko bizilagunen gustukoa ere bai, dudarik gabe.

Irune eta Itsaso Elizagoien, txapeldun gazteak

Aipamen ttiki bat merezi dute Etxalarko Trikitixa Taldeko bi partaidek, Beheko Etxeko Irune eta Itsaso Elizagoien ahizpek. Trikitixa txapelketetan egindako merituengatik, ezagun egin dira azken urteetan eta ongi irabazi dute “txapeldun gazte” izena. 12 eta 11 urte dituzte, gazteak oraindik, baina hiru txapel irabazi dituzte trikitixa txapelketetan. Etxalarren bat eta Lesakan bi, Baztan-Malerreka-Bidasako trikitixa txapelketan.

Euren adinean bikoterik indartsuena osatzen dutela erakutsi dute behin baino gehiagotan eta garbi dago maila ederra dutela trikitixarekin, panderetarekin nahiz kantari. Plazarako

aldarte ona dutela nabari zaie. Promesa handiak dira, dudarik gabe.

Ikusteko dago orain, hemendik denbora batera, horrela jarraitzen badute, Euskal Herri osoa dantzan paratuko duen trikiti-bikotea Etxalarkoa izanen ote den, “Alaitz eta Maider”en gisa, “Irene eta Itsaso”. Denborak erranen du.

Kontaktu telefonoak:

948 635084 (Nagore)

948 635122 (Joseba)